

# KENNEDY TA NIXON

Lau illabete oneitan, izan da zarata munduan, Ipar-Amerika'ko auteskundiak diralata. Munduan diñot, eta orrela da. Amerika goi aldeko eguneroko ta edadura aundiko aldizkariak ez-czik, lurrean dan azkenengo zokoan argitaratutako orriak be, arlo orreri ekin dautsie garai ontan. Ipar-Amerikak askotxo esan nai munduan, eta bertako gorabera ta azi-orraziak autorrean erabilli bear.

Ipar-Amerika'n alderdi bi dagoz politika zelaian: demokrasi-zaleena ta erikal-zaleena. Ta alderdi biok dabe jo-muga bardin samarra, bai barruko bai kanpoko erri-arazoetan. Baiña, auteskunde garala urreratzean, alderdi bakotxak aukeratzen dan bere gizona ta erriari aurrez jarten dantsu; onek esango dan gero, boto hitartez, nor dan duiñen aukerakoen, Washington'en Etxe Zuriko aukiarren jabe izateko. Orain, Eisenhower'en ordezkotzat, demokrasi-zaleak Kennedy ipiñi dabe; Nixon, oster, erikal-zaleak.

Biak be balio aundikoak, diñoenez, Burruka orretan, nok irabaziko ete? Erriak maiteen dauanak, Orixe, ain zuzen be, Ipar-Amerika'ko Laterri Batuen jaurri-ugelak eskuan izango dabezana, Agiri denez, nai bat tak nai besteak, gitxi gorabera, politika bardiña daroe; oker-une gora aundi bakoetan bananduta ibilli arren, irakaspen-oiñarrietan eta abar ez daukie esateko alderik; eskola batekoak dirudie.

Auteskunde aurretik, uiol izugarri batan antzera, dana zenduan zarata ta iskanbilla, erriak erri. Irratiz edo radioz, urrutikuskiñez makiña bat itzaldi egin zan. Zenbat iragarri ta ots eguneroko ta zabalkundestartetan! Baiña, joran bizi onen guna? Onela diñotse alkarri: «Ik ori egin dok; nik obeto egingo yoat». «I au ta ori azo, «I geiago». Eta gero zer? Bostekoa alkarri bai ta sarri besarkada beroa be. Ez da ezer jazo. Bost bider gitxienez, arpegiz arpegi itz egin dabe telebisiño pantalla aurrean. Au ikusi dabenak milloika izan dira Ipar-Amerika'n; arein itzaldiak benetako aberri miñez entzun dabezana be bardin, milloika ta milloika.

Ori gertakuntza ta, aldiak berea egiñik, amaitu zan lan orren epea. Boto-eguna el-

du da, ta orain erriak jokatuko. Ipar-Amerikarrak oro, zar ta gazte, aberats ta tris autarkia emotera doiaz. Nori, baiña? Bakotxak jakingo. Alan be, begikoen dabena arexi emongo: onek Nixon'i, arek Kennedy'dy'ri. Milloikoa ta milloikoa. Eta asarrierik? Friotzarik? Ez orixe! Azke ta libre da bakotxa bere kutunena aukeratzeke. Orrela xe, ibai aundi antzera, jentea ta jentea txatela utxan jarten. A bai eguna! Egun txardia! Egun gomutagarria!

Baiña joan da egun ori be. Nor garaille! Kennedy. Nixon'ek baiño autarki, boto txoago dauka; ez alde aundirik, baiña zerbait geiago. Kennedy, beraz, Ipar-Amerika'ko Buruzagi barria. «Etxe Zuri»-ko irudiñ. Ez da zokorik txalots bakorik. Txaloe ta zoriona. Ar ber nirea be, oso beroa. Eta onela dagie guztiak: Eisenhower'ganñiñ asi ta azkenengo erritar ezkuturanoakoak antitu zorionka, txaloka, zantzoka. Bai ta Nixon bera be. Etsai ez ete ziran lentxoage! Eta zer? Oi askatasunaren zentzuna! Alkar maitzatze goxoa! Aberriaganako ziñezko zentzuna! Munduko iragar-orratz guztiak, Ipar-tramankulu guztiak goretsi dabe Kennedy. Arnas aundiko, argi, jakintsu, biotz-zabal ta arteza, giza-doaiez gaiñezkako gizona. Anberakoa nurbait Ipar-Amerika lango erria, bide egokiz zuzentzeko.

Autu baiño leu ba-zan kezka pixkat Kennedy'n kontra. Uzkuertez katoliku dogu Kennedy; Nixon, barriz protestanteen artiko kuaker saillekoa. Ipar-Amerika'n ez da oraindiño katolikurik Buruzagi edo Presidente izan. Baiña au koska ete? Anjo Legediarentzat ez. Baietz uste zan, alan eta guztiz be. Orrela iñoen parraparra, protestanteak baitik-bat. Erriarentzat, oster, ez da izan eragozpen edo zoztor katoliku izate, eta bere gorabereetako onena eritxonarri emon dautso autarkia. Kennedy here aldetik ez da egundo nastauko, Buruzagi denez beintzat, erlejiño gauzetan.

Gaur Ipar-Amerika'n 40.871.302 katoliku dagoz. Eleizea ta Laterria olako berarizko ar-emon barik, banazean bizi dira; bakotxa bere bidetik dabil, bakotza bere buruaren jabe askatasun zantzupean, bata-besteagazko lotsa, laguntza, adei ta eskubide-lokarriz gantzututa.